

# Antxiñako fotografixia



## Gerra aurreko Berezaoko eskolia

**L**ehenagotik be bazan **auro-eskola** Berezaon, baiña 1934. urtian barrizketia eta haundiketia erabagi ebein. Ordurarte hamasei bat ikaslerentzako gelia eukan eskoliak handik aurrera berrogeitamar umetik gora hartz ahal izan eben. Ikastetxe formal modutu ebein auzolanian **Santa Lutziaren** ermitiari erantsitza: sarreratxo bat, ikasgela zabala, maixuarendako gelia eta auzoko billerak egitteko lokal txiki bat eukan. Obrak iraun ebein bittartian, **Korriueneko** artakamaran emun zittuain klasiak. Inauguraziñuan Bittorixako obispua —**Mateo Mujika** ospetsua— eta beste agintari batzuk egon ei ziran eta egun señalaua izan zan.

Barritzautako eskola honetara Berezaoko neskatilla-mutikuak ezezik, **Murgixa, Lezesarri** (goi eta behe) eta **Portaleku/Lekunbarrikuak** be inguraketen ziran. Sasue haretako maixua **D. Migel Elortza, Santa Krutz** errortako semia, irakasle ona ei zan, baiña eskola barrikan bi urtian bakarrik jardun ahal izan eben, 36xan allegau zan gerrako gorabeherengatik. Oñatiñik alde egin bihar izan eben eta. Gerra ondorion be inguruetako ume asko faten zan eskola horretara. Dana dala, 1963an prefabrikautako beste eskola bat jaso ebein haruntzatuago. Gerora, auzuetako ikasliak kaleko ikastetxetara ekarri zittuain, eta gaur egun Berezaoko eskola honeittatik bata be ezta geldiketan.



**KONTRATAK  
iEUROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis.

Tfnoa: 77 09 92

ARRASATE

San Lorenzo, 39

Tfnoa: 78 21 82

OÑATI

**ADI**

- Fotokopiak
- Kolorozko kopiak
- Enkuadernazioak
- Fax publikoa

Foruen enparantza

OÑATI

Tfnoa: 78 24 89 Fax: 78 24 89



**F**otografian agiri diran umiak 1935/36 ikasturtekuak izango dira, seguruenik; orain dala 61 urte inguruak; 6/7 eta 14/15 urte bittarteko 57 ikasle danera. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitzek ditzuzue guztiak izenak eta jatorriak:

1. illaran: **Antoni Anduaga**, Zelaikua; **Felisa Txintxurreta**, Lekunbarriko Mardonekua; **Rosario Igartua** (†), Lekunbarriko Altziñenekua, baiña Azkontegi bizi zana eta gero Ameriketara fan zana; **Irene Zabaleta**, Etxebarrikua; **Baxili Txintxurreta**, Goixenetxekua; **Elisa Guridi**, Zelabarrengua; **Nieves Elortza**, Santa Krutzekua; **Amparo Billar**, Liñantzibargua, Legazpi bizi dana; **Josefa Etxeberria**, Korriuenekua; **Maria Anduaga**, Txatzokua, Karpiazelain bizi dana.
2. illaran: **Bixenta Arrillaga**, Jargikua; **Bixente Ugarte**, Telleriartekua, baiña jatorriz San Estebangua; **Ines Guridi**, Zelabarrengua, Afrikan monja daguena; **Benita Guridi**, Lezesarri baserrikua; **Sabina Etxeberria**, Korriuenekua; **Karmen Arriaran**, Estenagakua; **Malen Txintxurreta**, Goixenetxekua, Buenos Airesen bizi dana; **Maria Luisa Etxeberria** (†), Korriuenekua; **Nati Anduaga**, Zelaikua; **Maritxu Zabaleta**, Etxebarrikua; **Maria Aiestui**, Ertzilgua.
3. illaran: **Teodoro Txintxurreta**, Mardonekua; **Esteban Ugarte**, Azkarretakua, Telleriarten bizi dana; **Joxe Mari Aiestui**, Ertzilgua; **Antonio Elortza** (†), Tantelukua; **Joxe Luis Elortza** (†), Tantelukua; **Iñazio Elortza**, Lekunbarrikua, jatorriz Aunterrekakua; **Tomas Txintxurreta**, Mardonekua; **Gregorio Moiua**, Mendikua; **Emilio Zabaleta**, Lekunbarriko Burdinotxonekua; **Bixente Txintxurreta** (†), Portaleku Bidebañenekua; **Alfonso Urrutia**, Kipuetxekua; **Bixente Etxeberria** (†), Korriuenekua.
4. illaran: **Juan Billar**, Liñantzibargua, Madrilen bizi dana; **Martzeñio Moiua**, Tokillokua; **Sebastian Etxeberria**, Korriuenekua; **Doroteo Urrutia**, Kipuetxekua; **Pablo Arkauz** (†), Gastiasorokua; **Maria Elortza**, Santa Krutzekua; **Migel Elortza** (†), maixua, Santa Krutzekua; **Joxe Luis Txintxurreta** (†), Bidebañenekua; **Felix Umerez**, Umerezkua; **Felix Urteaga**, Jauregikua; **Bernabe Guridi** (†), Estenagakua; **Santi Olalde** (†), Kale Barriko Silleruenekua; **Bixente Ugarte**, Lekunbarrikua, arotza.
5. illaran: **Nati Arriaran**, Estenagakua; **Tere Etxeberria**, Korriuenekua; **Joxe Txintxurreta**, Mardonekua; **Leandro Arabaolaza**, Portalekukua, jatorriz Artxubikua; **Antonio Kortabarria**, San Juan kaleko Gogordonekua, Txatzokuan bizi zana; **Joxe Mari Arkauz**, Kapaingua; **Tomas Txintxurreta**, Bidebañenekua; **Lorentzo Arriaran**, Lekunbarrikua, jatorriz Estenaga eta Korriuenekua; **Antoni Urrutia**, Elorrixagakua; **Joxe Luis Arriaran**, Lorentzoren anaia; **Felix Guridi** (†), Estenagakua; eta **Felix Ugarte** (†), Azkarretakua.

Kuadrilla majua, ezta? Ba, norbaittek fotografia honen kopixaren bat ataratia gurako baleu, klitxia Lorentzo Arriaraneri eskuat deixaola eta gustora itxiko xao.

J.E.

Argazkia Codina erretreatistak atara eben eta Lorentzo Arriaranek itxi dosku. Argibidiak, berriz, Lorentzok berak, Martzeñio Moiak eta Julio Larrañagak emun doskue. Milla esker danoir!

**Begoña**  
Mertzeria

Atzeko Kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

**Begoña**  
Edertasun Zentrua

- Solariuma
- Pedikurak
- Depilazioak
- Tratamendu fazialak eta korporalak

Atzeko Kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI



**PEUGEOT-TALBOT  
OÑATI K. Elk.  
GARAJEA**

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50  
**OÑATI**